

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

6145

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 25ekoa, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren markoan –2021eko ekitaldiari dagokionez– emandako laguntza ekonomikoaren onuradunen zerrenda. Dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko guneak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak arautzen dira (Itsaspen Programa).

Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko guneak garatzeko eta bultzatzeko laguntzen erregimena arautzen da (Itsaspen Programa).

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko sailburuaren 2021eko otsailaren 10eko Aginduaren bitartez, 2021eko ekitaldiari dagokionez aipatutako laguntzetarako deialdia egiten da, eta laguntza-eskabideak aurkezteko epea irekitzen.

Aipatutako dekretuaren 11.5 artikuluan ezartzen denez, laguntzen onuradun atera diren pertsonen zerrenda EHAAn argitaratuko da –publikotasunaren ondorioetarako–, hargatik eragotzi gabe laguntzak ebazten dituen ebazpena banan-banan jakinaraztea. Horrekin batera, emandako zenbatekoak ere adieraziko dira.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Otsailaren 21eko 22/2012 Dekretuaren markoan –2021eko ekitaldiari dagokionez– emandako laguntza ekonomikoaren onuradunen zerrenda argitara ematea. Dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzeko guneak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak arautzen dira (Itsaspen Programa).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 25a.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria,
JONE MIREN FERNÁNDEZ LANDA.

ERANSKINA

Espedientearen erref.	2021eko Itsaspen programaren entitate onuradunak	Dirulaguntza, eurotan
00001-ITP2021-18	Plentziako Udala	13.027,13
00002-ITP2021-18	Orioko Udala	69.807,91
00004-ITP2021-18	Amorotoko Udala	10.203,17
00005-ITP2021-18	Elantxobeko Udala	13.884,94
00006-ITP2021-18	Getariako Udala	42.681,00
00008-ITP2021-18	Lekeitioko Udala	54.161,55
00009-ITP2021-18	Debako Udala	49.988,81
00010-ITP2021-18	Muruetako Udala	9.887,40
00012-ITP2021-18	Bermeoko Udala	58.343,37
00014-ITP2021-18	Sukarrietako Udala	23.901,36
00015-ITP2021-18	Itziarko Toki Entitate Txikia	4.677,38
00017-ITP2021-18	Aiako Udala	10.981,27
00018-ITP2021-18	Gautegiz Arteagako Udala	11.230,95